



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2018-11-07

BILERA ZENBAKIA:54

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Javi, Leire, Mainer, Itziar.

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

#### 1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA.

#### 2. 2019KO ANTOLAKUNTZA

#### 3. ELIKADURA OSASUNTSUA.

#### 4. AZAROAK 25

#### 5. BESTEAK

#### 1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA.

**Azken akta onartu da, puntu, eginiko aurrerapenak aipatu dira:**

**Egutegia:** Argazki batzuk jada aukeratuta daude eta martxa onean doa. Topaketan erabilitako "logoa" egutegian presente egotea proposatu da.

**Elikadura osasuntsua:** Ongizatek beregain gai asko hartzen ditu, eta, lan handia izan du, elikagai osasuntsuaren gaia, ongizatearekin lotuta badago ere zuzen zuzenean bertatik landu beharreko gaia ez dela baloratzen da, gehienbat, orain horretarako baliabiderik ez delako.

**Janari banaketa:** Banaketa eguna era positiboan baloratu zuen Elenak. Erabiltzaile bakoitzak zenbat jasoko duen zatitzen duen programa aurrera pausu handia izan da boluntarioentzat.

Hori ikusita, banaketa hiru hilero egun eta ordu batean egitea egoki ikusten da, orain arte bezala, hiru hilean behin izanik eta boluntario sistema indartu denez eramangarria da.



Takilen antolaketari dagokionez: 3 erabiltzaile berri sartu dira, eta erabiltzaile batzuk familia unitate handia dute (azken hauek 4 takila behar dituzte, 3 hileko jana dela kontutan izanda). Hasieran aurreikusitako takila kopurua handitu egin da, eta, 10 takila berri beharko litzateke.

Banaketa momentuan egingo denez falta diren takilak ez jartzea ere baloratu da eta Ongizate Lantaldeak ere balorazio hori onartu du.

Salto sistema atean jartzea ere planteatu zen, aurrekontua (aurreko ateen aurrekontua kontutan izanda) 2.000 euro ingurukoa litzake. Banaketa momentuan egin behar denez salto jartzea ere ezeztatu egin da.

Takilen giltzei dagokionez, oraingoz udalean geratuko dira, banaketa momentuan egin behar baita.

Giltza maestra bat ere bada, eta, hau udalean uztea planteatzen da. Bolondresak takiletako giltzen kopia bat izango dute.

**Guztion herria:** Herri diagnostikoarekin jarraitzen du dinamikak. Kultur aniztasuna gai hartuta ekintza ezberdinak planteatzea interesgarri izan daitekeela baloratzen da Ongizate Lantaldetik.

**Aisialdia denontzat:** Guztion herria gai hau lantzeko esparru egokia izan daitekeela baloratzen da, izan ere bertan biltzen dira gaiaren lanketan koordinatu beharreko eragileak (eskola, gurasoak, ongizate, aisia, etab)

**Memoria tailerra:** Azken saioan 6 pertsona bildu ziren eta era positiboan baloratu da.

### **Hezkidetzan eta berdintasunean oinarritutako jostailuen lanketa:**

1. Triptikoa martxan da. Sortzen-eko triptikoaren estilokoa egin nahi da. Eskolak urtero helarazten duen informazioa ere txertatu nahi da bertan.
2. Tupertoy. Guraso elkartean proposatzea planteatzen da. Haur eta gurasoekin joko ezberdinak ikusi, frogatu eta bakoitzaren ezaugarrietan sakontzeko saio bat egin. (Alupe)

**Alu ulu antzerkia:** Kulturaren proposatu zen eta aurten ez da posible izango. Datorren urterako lotzen saiatuko dira.

**Ipuin kontaketa:** Eskola eta sexume harremanetan jartzeko ahalegina egin da, beraien esku da koordinazioa.



**Aurrekontuak:** Orain arte GLL-etarako 3.000 euro eman ditu Udalak. 4.000 euro ematea planteatzen da. Familia esku hartzerako aurrekontua berriz 15.000k eurokoa izango da. Esku hartze batek aldi baterako etena izango du, eta, gastua baxuagoa izango baita.

**Errefuxiatuak:** Maiatzetik hona hilero errefuxiatuekin loturiko zerbait antolatu da:

Erakusketa bat egin nahi da Itsasondo, Zumarraga, Zizurkil eta Itsasondon bistaratuko dena. Zaporeak, Salvamento, Pasaportes para Siria eta Sos Refugiadosen dinamikak azalduko dira bertan. Horretarako bideo bat edo argazki batzuk prestatu behar dira. Youtuben pegadaren bideo bat dago eta hori argazki batzuekin batera aukera bat izan daiteke.

Katilu berriak egingo dira Itsasondoko eskolako haurren ipuinetatik abiatuta.

## 2. 2019KO ANTOLAKUNTZA

Bilera bat egin zen, eta, beste bat egingo da ostiralean hilak 09. Datorren urtera begirako ekintzak eta antolaketa zehazteko.

## 3. ELIKADURA OSASUNTSUA.

Aurrez esan bezala, azkenik Ongizate Lantaldeak ez du beregain hartuko.

## 4. AZAROAK 25


Igandea denez eguerdiko 13:00ak aldera elkarte-atzea egitea proposatzen da. Balkoitik panela hartu eta bertan erabiliko da. Horrez gain Udalean dauden txapak banatuko dira, eta iaz eginiko pegatinak ba ote dauden begiratuko da, egotekotan hauek ere banatzeko.

## 5. BESTEAK

**GLL ak:** Ordainketak atzeratuta egiten dira eta prozesua sistemizatzea komeni da. Oraingoz Gizarte Langileak landuko du gaia.

**Berdinbidean:** Eskutitz bat bidali dute, Udalen beharrak ikusi dituztela eta bertaratzeko prest daudela azalduz, berdintasunaren inguruan egin nahi diren dinamiketan orientazioa emate aldera.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Egutegia bukatu	2018-12-31	
GLL ordainketena landu	2018-01-09	



Berdinbideanekoa argitu	2018-01-09	
Aisialdia denontzat eta bizikidetzari buelta bat eman.	2018n zehar	
<b>HURRENGO BILERA</b>		
2019ko Urtarrilaren 16an.		
Jorratuko diren gaiak:		
<ul style="list-style-type: none"><li>• Aktaren onarpena.</li><li>• 2019rako plangintza.</li><li>• Tratu txarren esku orriak.</li><li>• Besteak:</li></ul>		